

## Eibar

Eibarko VI. Umeen Euskal Jalaren Inguruan sortu diren mila eztabaldak ikusiaz, Arrateko Euskal Batzordekoak\* garenok, ANAI-TASUNAREN bitartez, zeintzuk izan diren gure asmoak azaldu nahi dugu. Gertatua denok dakigu, ikusi dugunez; eta garbi dago, ikusi nahi duenarentzat.

Hasi aurretik esanen dugu, aurten egin nahi izan duguna, ez zaikula besterik gabe buruan sortu. Aitzitik,\* pizka pizkaka gure begien aurrean jartzen joan den errealtate bat izan da.

Guk denok neurri batean lagundu diegu beste urteetako Euskal Jalaren antolatzaileei: batzuek haurrak zaintzen, beste batzuek dirua batzen eta baita ere karroza ekintza aurrera eramaten.

Urteak joan eta urteak etorri, hor eta hemen jardun izan dugu; eta egun batean galdera hau egliten dlogu geure buruari: Baina zer da haurren euskal jala? Erraza egliten zaiku erantzuna; baina zer egin, jai on bat lortzeko? Erraza da jakitea nola jolasten duten haurrek: beti beren tartean eta erakusten zaizkien jolasetan eta askotan jolasaren bitartez beren kezkek adieraziz.

Aurten antolatzerakoan, hemen gure kezkek. Ez genuen nahi inondikan ere, Haurren Euskal Jai hau pertsona nagusientzat bakarrik egun zoragarri bat bihurtu.

Gure eta gaurko haurren euskal jala egin behar genuen. Haurrak izan zitezela protagonistak eta jala ere halentzat zedila, urte osoan amets egin duten paregabeko alarde batekin.

Gauza ez zen erraza, eta, karroza lekuan ikastola batzuetako haurrek beren herriko edo taldeko kezkek agertu bazituzten ere, ikasi izan da, Unzaga ez dela toki egokia, halako agerpen bat egliteko. Alde horretatik hori da gure ikuspena. Zeredozer egin da aurten, oso gutti; baina hor dago hori! Denbora denborari, eta berak emanen dauku erantzuna. Beste alde bat zen astea osatzea, gero igandeko jala amaitzeko. Honetan ere, beste urte batzuetan bezala, hitzaldiak izan ditugu.

Nola eta nondik atera ditugun mamiak eta sustralak, hitzaldiak antolatzeko? Herritik, Eibarko herritik.

Haurra genuen «nagusi», eta, hau hartuz, Eibarrera begiratu genuen, Nork daki zer den haurra eta beronen eboluzioa, sikologo, andereño, maisu eta gurasoek baino hobeto? Hauk ziren gure bideak, denon elkar hizketa baten bitartez, Eibarko guraso guztiei errealtate bat adierazteko: Gaurko haurra biharko gizona dela eta ez etxeko beste gauza polit edo galzto, poliki eta garbi jantzita kalera botatzen dena.

Euskaldun herri baten parte bezala, betebeharrak bat dugu haurrei buruz.

Nahiz eta negargarri izan, gaur Eibarrek ez du hizkuntza bat bakarrik, bi bazik, eta eskola gehienak erdarazkoak dira.

Hau ikusita, ez ote dugu euskaldun guztioak lan berezi bat, herrira euskalduntzeko, erdaldun holk euskaldunduz eta herriko euskal errealtatean sartuz? Eta zer hobe Haurren Euskal Jala baino (galtzen dutenak, haurrak berak direla ikusiaz), gurasoak esnarazteko?\*

Haurrak dira, pisu guztia erortzen\* zalena, eta gure haurrei beste inori baino gehiago. Askotan euskara haurrei eta zakurrei hitz egliteko erabiltzen dute gurasoek, eta, horrek haurraren buruan sortzen duen ikuspenaz konturatu gabe, erdarazko eskoletara bidaltzen dituzte beren umeak. Non dago hor euskal kontzientzia? Berdin gertatzen omen\* da ikastoletan ere, guraso erdaldunek edo beren artean euskaraz egliten ez dutenek haurrak ikastoletara bidaltzen dituztenean.

Eta guk bi puntu hauk ikusten genituen nabarmen aurten, gogor lan egliteko:

- Gurasoek adierazi, hizkuntzak eta eta irakaspen bideek haurrentzat duten garrantzia, eta
- Eibar bilingue hau agertu. Jakin dezagun denok, Eibar euskaldun izan dadila nahi badugu, gogor lan egin behar dugula, erdaldunak iratzartzen eta gaurko euskal errealtatean sartzen.

Aste batek zazpi egun ditu; eta euskal aste honetan azaldu nahi izan dugun ekintzak, milaka egunen lana eskatzen du. Eibarren ba ote dago indarrik, denok egunen batean euskaldunak (euskaradunak) izatera hel galtezen? Guk, nahi dugu eta uste dugu baletz. Ekin dezagun lanean.